

OSTEGUN BIDAIAIRIAK – OINARRIAK:

1. **Lehiaketaren helburua:** Opor atarian, bidai ezberdinen esperientziak konpartitzea diaporamen bitartez, entzuleek udarako ideiak izan ditzaten.
2. **Antolatzailea:** Aretxabaletako Udala.
3. **Parte hartzaileak:** Gehienez 6 parte-hartzaile izango dira lehiaketan. Banakakoek zein taldeek parte hartu ahal izango dute. Parte-hartzaileen adina izango da 20-40 urte bitartekoa, Debagoienean jaio edo bizi dena.
4. **Aukeraketa:** Izena ematen dutenen artean aukeraketa bat egingo da diaporamen kalitatearen eta bidaiaren egingarritasuna eta praktikotasuna kontuan hartuta. Parte-hartzaileek diaporamaren laburpen bat eta argazki batzuk aurkeztu beharko dituzte. Hortaz, jasotako proposamenetatik 6k izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera.
5. **Diaporamaren iraupena:** 30-60 minutu arteko diaporama.
6. **Hizkuntza:** Aurkezpena euskaraz egin beharko da.
7. **Bidaiaren ezaugarriak:** Aurkeztuko diren bidaiak azken 5 urteotan egindakoak izan beharko dira.
8. **Emanaldiak:** Emanaldiak Aretxabaletako taberna ezberdinetan izango dira, ostegun iluntzetan, 21:30ean. Emanaldien egunak honakoak izango dira: maiatzak 16, maiatzak 23, maiatzak 30, ekainak 6, ekainak 13 eta ekainak 20.
9. **Izen-ematea:** Apirilaren 22tik maiatzaren 3ra bitartean aurkeztu beharko dira bidaiaren laburpena eta argazkiak, gazteria@aretxabaleta.net helbidera idatziz edo 943 08 10 01 telefonora deituz.
10. **Publikoak emango du botoa:** Ikusleek aukeratuko dituzte irabazleak bozka emanez. Ikusleek diaporama ostean bakarrik eman ahal izango dute bozka tabernan bertan kokatutako buzoian. Garrantzia emango zaio bidaiaren egingarritasunari eta bidaiak transmititzen duen gertutasunari. Ekimenaren helburua bidaietarako ideia iturri izatea da, beraz bidaiak merkea eta praktikoa izan beharko du.
11. **Sariak:** Hiru sari banatuko dira. Sari nagusia (250 euro), bigarren saria (150 euro) eta hirugarren saria (100 euro). Epaimahaiak horrela erabakiz gero, sariak hutsik geratu daitezke.
12. **Oinarrien onarpena:** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.